



Wiko

SHARE YOUR IDENTITY

*Sunset*TM

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua**



Eskuliburu laburra

*Baliteke eskuliburu honen edukia eta zure telefonoarena
desberdinak izatea, softwarearen bertsioaren edo zure te-
lefono-operadorearen arabera.*

ZORIONAK!

WIKO SUNSET telefono mugikor bat eskuratu berri duzu.

Eskuliburu honetan aurkituko duzu telefono mugikorra erabiltzeko informazio guztia, WIKO unibertsoan sar zaitezen lehenbailehen.

Copyright © 2014 WIKO

es.wikomobile.com

Eskuliburu honek dakarren informazioa ezin da inola ere transmititu, erreproduzitu edo hedatu WIKOren idatzizko baimenik gabe.

Marka komertzialak

WIKO WIKOren marka erregistratua da.

Oharra

WIKOk eskubidea du edozein unetan eskuliburu honetako informazioa aldatzeko. Kontu handiz egin

dugu eskuliburu hau, baina hemen jasotzen den informazioa eta gomendioak ezin dira berme gisa hartu.

Erantzukizunaren muga

Gailu honen bidez eskuratu daitezkeen zerbitzu eta eduki guztiak hirugarren batzuen jabetzakoak dira; beraz, legeak babesten ditu (egile-eskubideak, patenteak, lizentziak edo jabetza intelektualeko beste lege batzuk). Zerbitzu horiek eroslearen erabilera pertsonalerako dira, ez erabilera komertzialerako. Eduki eta zerbitzu horiek ezin dira erabili edukiaren jabearen idatzizko baimenik izan gabe. Erosleak ezingo du inola ere kopian, argitaratu, transferitu, saldu edo ustiatu, inolako euskarritan, gailu honen bidez editatutako eduki edo zerbitzurik, ez eta haien ondoriozkorik ere.

HIRUGARREN BATZUEN ZERBITZUAK ETA EDUKIAK "BERE HORRETAN" EMATEN DIRA. WIKOK EZ DITU BERMATZEN HORRELA EMANDAKO EDUKIAK EZ ZERBITZUAK —EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI—, EDOZEIN DELARIK ERE HELBURUA, EZTA MERKATURATZEAREN ETA ERABILERA JAKIN BATERA EGOKITZEAREN BERMEAK ERE. WIKOK EZ DU BERMATZEN GAILU HONEK EMANDAKO EDUKIEN EDO ZERBITZUEN ZEHAZTASUN, BALIOZKOTASUN EDO LEGEZKOTASUNIK. WIKO EZ DA INOIZ IZANGO, EZ KONTRATU BIDEZ EZ DELITU BIDEZKO ARDURAPEAN, ZABARKERIAGATIK GERTATUTAKO KALTE ZUZENEN, ZEHARKAKOEN, ISTRIPUEN ONDORIOZKOEN EDO BEREZIEN, ABOKATUEN ORDAINSARIEN, GASTUEN EDO EROSLEAK EDO HIRUGARREN BATZUEK EDUKIAK EDO ZERBITZUAK ERABILTZETIK SORTUTAKO BESTE EDOZEIN KALTEREN ARDURADUN, EZ ETA WIKORI KALTE HORIEK GERTA ZITEZKEELA OHARTARAZI BAZITZAION ERE. HERRIALDE BATZUEK EZ DUTE BAIMENTZEN BERME INPLIZITUAK BAZTERTZEA

EDO KONTSUMITZAILEAREN LEGE-ESKUBIDEAK MUGATZEA. BALITEKE EROSLEARI EZ APLIKATZEA SALBUESPEN ETA MUGAK.

Hirugarren batzuen zerbitzuak noiznahi eten edo deusezta daitezke. Denborak aurrera egin ahala, WIKOk ez du ziurtatzen edozein edukiri edo zerbitzuri buruzko inolako ordezkartzarik, ez bermerik. WIKOk ez du inolako kontrolik hirugarren batzuek sare edo transmisio-gailuen bidez transmititzen dituzten edukiei edo zerbitzuei buruz.


WIKOk berariaz uko egiten dio gailu periferiko honen bidez emandako eduki edo zerbitzuak eteteari edo amaitzeari, erantzukizun-muga horren orokortasuna mugatu gabe.

WIKO inola ere ez da izango edukiekin eta zerbitzuekin lotuta bezeroari ematen zaion zerbitzuaren erantzule. Edukiari edo zerbitzuei lotutako galderak edo eskaerak zerbitzuen eta edukien hornitzaileei bidali behar zaizkie, zuzenean.




Kaxaren edukia:

1. WIKO SUNSET mugikorra
2. Korrante-egokigailua
3. MicroUSB kablea
4. Entzungailuak
5. Bateria
6. Erabiltzailearen eskuliburua

Sarrera



~ Telefonoko teklak


Teklak	Funtzioa
Pizteko/Itzaltzeko/ Blokeatzeko tekla	Tekla hau luze sakatuz gero, telefonoa piztu edo itzali egiten da. Labur sakatuz gero, ukipen-pantaila blokeatu egiten da.
Hasierako tekla 	Tekla hau arin sakatuz gero, pantaila nagusia bistaratzen da.
Menu-tekla 	Tekla hau sakatuz gero, aplikazio aktiboan erabilgarri dauden aukeren menuak bistaratzen dira. Luze sakatuz gero, azkena erabilitako aplikazioen zerrenda irekitzen da.
Itzultzeko tekla 	Sakatu tekla hau, aurreko pantailara itzultzeko eta teklatura desagerrarazteko.
BOLUMENA +/-	Sakatu, deiaren, tonuaren, musikaren, jokoen eta beste audio-funtzio batzuen bolumena handitzeko edo txikitzeko. Telefonoak jotzen duenean, modu isilean jartzeko aukera ematen du. Bilera-modua aktibatzeko, luze sakatu bolumen-tekla.

Hasi aurretik

~ SIM txartela instalatzea

SIM txartelak gainjarrita daude SIM konpartimentuan. Goiko SIM txartela sartzeko (slot 1), jar ezazu SIM txartelaren kontaktuak behera begira direla, eskuineko konpartimentuaren gaineko marrazkiko jarraibideak betez.


Beheko SIM txartela sartzeko (slot 2), atera konpartimentuaren azpian dagoen erraila, ezkerreko erlaitzaren laguntzarekin, jarri SIM txartela barruan, txartelaren kontaktuak gora begira direla, konpartimentuaren ezkerreko marrazkiaren jarraibideak betez, eta eraman berriro erlaitza bere lekura, kontu handiz.



~ Bateria instalatzea

Adi: WIKOk onartutako bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili.

Jarri bateria bere konpartimentuan, telefonoaren kontaktuak eta bateriarenak lerrokatuz. Gero, egin bultza bateriari, kontu handiz, eta bere lekuan kokatuko da.



~ Bateria kargatzea

Telefono hau berriz kargatzen den bateria baten bidez elikatzen da. Adierazleak argi keinukari gorria izango du bateria-maila oso baxua bada. Orduan, kargatu egin beharko da, maila baxuegia izanez gero murriztu egin bailiteke haren funtzionamendu-bizia. Konektatu kargagailua korrante-hargune batera, eta mikro USBaren muturra telefonoaren USB konektorerara. Adierazlea gorri jarriko da, telefonoa kargatzen ari dela adierazteko.

Kargatutakoan, adierazlea berde jarriko da. Deskonektatu, orduan, kargagailua telefonotik.


Informazio gehiago lortzeko, ikus "Segurtasuna" atala.



~ Memoria-txartela instalatzea

Zure telefonoak 32 gigarainoko microSD memoria-txartelak onartzen ditu.

Memoria-txartel bat instalatzeko, itzali telefonoa, kendu telefonoaren atzeko karkasa, atera bateria, eta, gero, jarri memoria-txartela dagokion lekuan.



~ Martxan jartzea eta deskonektatzea

Telefonoa pizteko, luze sakatu ON/OFF tekla.

SIM txartela blokeatuta badago, sartu dagokion PIN kodea, desblokeatzeko, telefonoa martxan jartzean. PIN kodea telefono-operadoreak ematen du. Ez badaukazu edo galdu egin bazaizu, jarri harremanetan zure operadorearekin. PIN kodea hiru aldiz gaizki sartuz gero, mugikorra blokeatu egingo da, eta PUK kodea erabili beharko da desblokeatzeko (SIM txartelarekin batera ematen da. Horrela ez bada, jarri harremanetan telefono-operadorearekin).

Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, menua bistaratu arte. Ondoren, sakatu *Apagar*. Gero, sakatu *Ok*, berresteko.

Erabat itzali aurretik, telefonoak bibratu egingo du.

Oinarrizko funtzioak

~ SIM txartelak administratzea

Telefonoa lehen aldiz martxan jartzean, SIM txartelari edo txartelei buruzko mezuak bistaratuko dira, gailuaren doikuntzak, mezuak eta Interneteko konexioa aldatzera gonbidatuz.


Doikuntza lehenetsiak ondo badaude, sakatu *Cerrar*. Bestela, sakatu *Cambiar*, eta **Administración de SIM** menua bistaratuko da. Ondoren, aukera hauek dituzu:

1. SIM txartelen informazioa pertsonalizatzea **ADMINISTRACIÓN DE SIM** aukeran. Atzealdeko koloreak bi SIM txartelak menuetan bereizteko balio du.
2. **SIM lehenetsia*** doitzea, ahots-deietarako, bideo-deietarako, mezuatarako eta datu-konexiorako.
**Beste SIM bat ere aukeratu dezakezu ekintza bat egitean, adibidez, dei bat egin aurretik edo SMS/MMS*


bat bidali aurretik. Lerratu jakinarazpen-panela pantailaren beheko aldera, eta sakatu nahi duzun SIMa. SIM lehenetsia azpimarratuta ageriko da. "Preguntar siempre" aukeratzan baduzu, dagokion ikonoa agertuko da estaldura-adierazlearen ondoan, deien eta SMS/MMSen menura sartzean.

~ Datu-konexioa

Telefonoa lehen aldiz piztean, edo SIM txartelez aldatu eta telefonoa berriro piztean, *Configurar APN* menua agertuko da (Interneten ondoan). Gero, sakatu *Modificar*.

Sakatu SIM txartelaren izena, sarbide-puntuaren zerrenda bistaratu dadin. Aukeratu zure telefono-operadoreari dagokiona eskuineko botoia sakatuz, eta gero sakatu itzultzeko botoia , aurreko menura joateko.

- **APNa (sarbide-puntuaren izena) ez dago erabilgarri**

Zure telefono-operadorea zerrendan ageri ez bada edo zerrenda hutsik badago, jarri harremanetan zure operadorearekin, APNak eskuz konfiguratzeko. Horretarako, sakatu menu-botoia , gero, *Nuevo APN*, eta osatu zure operadoreak emandako informazioa. Sakatu berriro menu-botoia, eta hautatu Guardar. Aurreko menura pasatzean, aukeratu gorde berri duzun APNa.

- **Datu-konexioa aktibatzea**

Datu-konexioaren konfigurazioa ikusteko:

1. Aukeratu *Ajustes* → *CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES* → *Más...* → *Redes móviles* → *APN*, eta aktibatu sarbide-puntua, operadorearen/kontratuaren arabera.

2. Itzuli aurreko ***Ajuste de la red móvil*** menura, eta, gero, sakatu *Conexión de datos*. Ondoren, sakatu SIM txartelaren izena, aktibatzeko.

*Jakinarazpen-panela beheantzean lerratuta ere aktiba dezakezu datu-konexio bat.

- **3G zerbitzua**

Bi SIM txartel badauzkazu txertatuta, haietako bakarra aktiba daiteke 3G zerbitzurako. SIM1 aktibatzea gomendatzen dugu, errendimendu egoki bat izateko. SIM txartelez aldatu nahi baduzu, aukeratu *Ajustes* → *CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES* → *Más...* → *Redes móviles* → *Servicio 3G* → *Habilitar 3G*.

- **Datu-desplazamendua**

Kontuan izan desplazamenduko SIM txarteletarako **datu-desplazamendua** aktibatu behar duzula: *Ajustes* → *Administración de SIM* → *CONFIGURACIÓN GENERAL* → *Itinerancia*. Bestela, Interneteko konexioa lehenespenez desaktibatuko da. Operadore birtual baten datu-konexioa erabiltzen baduzu, baliteke aukera hori aktibatu behar izatea.

~ Egoera-barra

Egoera-barrako jakinarazpen-ikonoak

-  Seinalearen potentzia
- G** GPRS sarea konektatuta
- E** EDGE sarea konektatuta
- 3G** 3G sarea konektatuta
- H** HSPA (3G+) konektatuta
- H+** HSPA+ (3G+) konektatuta
-  Ez dago seinalerik
- R** Desplazamenduan
-  WiFi sarea erabilgarri

-  WiFi sarea konektatuta
-  Bluetootha aktibatuta
-  GPSa martxan
-  Deia martxan
-  Deia zain
-  Dei galdua
-  Sinkronizazioa
-  Mezu elektronikoa berria
-  Alarma aktibatuta
-  Modu isila aktibatuta
-  Ahots-mezu berria



Deskarga martxan



Ordenagailura konektatuta



Bateriaren kargatze-maila



SMS edo MMS berria





Hegazkin-modua aktibatuta

Aplikazioen arabera, jakinarazpenek soinu-seinale bat, bibrazio bat edo adierazleen keinu bat egin dezakete.

Jakinarazpen-panela

Zure aplikazio guztien jakinarazpenak ezagutzeko. Mezu berriei, agendako etorkizuneko gertaerei, deskargen egoerari eta abarri buruzko informazioa honela bistaratuko da. Operadorearen izena panelaren beheko aldean bistaratuko da.

Sakatu  jakinarazpen puntual guztiak ezabatzen. Martxan dauden aplikazioak zerrendan geratuko dira. Jakinarazpen bat ezabatzeko, lerratu ezkerre-ra edo eskuinera. Panela ixteko, lerratu gorantz, edo sakatu ITZULTZEKO tekla .

Doikuntza-panelera joateko, sakatu .

~ Menuak erabiltzea


Zure telefonoaren menuak testuinguru-menu gisa edo aukera-menu gisa agertzen dira.

Testuinguru-menua

Testuinguru-menu bat bistaratzeko, luze sakatu pantailako elementua, eta testuinguru-menuak hari lotutako ekintzak proposatuko ditu. Adibidez, SMS bat luze sakatuz gero, mezu horren aukerak agertuko dira.

Kontuz: elementu guztiek ez dute testuinguru-menua. Menuei lotu gabeko elementu bat luze sakatzen baduzu, ez da ezer gertatuko.

Aukera-menua

Aukera-menu bat ager dadin, sakatu MENU-tekla . Aukera-menuak uneko aplikazioari edo pantailari lotutako ekintzak edo doikuntzak proposatzen ditu, baina ez elementu jakin bati lotutakoak, testuinguru-menuak egiten duen bezala.

Kontuz: pantaila batzuek ez dute aukera-menurik.

Segurtasuna

Telefono hau segurtasun-baldintza egokietan erabiltzeko, irakurri arretaz jarraibide hauek:

1. Haurrak: Arreta berezia jarri haurrei.

Telefono mugikorrek pieza solte asko dituzte. Horregatik, arreta berezia jarri behar duzu haur bat telefono mugikor batekin kontaktuan dagoenean. Produktu honek pieza txikiak ditu, irents daitezkeenak edo ustekabeen irentsiz gero asfixia eragin dezaketenak.

Zure telefonoak argazki-kamera bat edo argiztatzegailuren bat badu, ez erabili haurren edo animalien begietatik gertu.

2. Entzumena: Entzungailuen bidez potentzia altuan denbora luzez entzuten egoteak kalteak eragin ditzake entzumenean. Saiatu gutxienezko bolumena jartzen musika entzuten ari zarenean edo dei batean. Saiatu luzaroan ez entzuten bolumen altuan.

3. Gidatzen: Arretaz ibili gidatzean. Gidatzeko,

arreta handia eta etenik gabea jarri behar da, hala, istripu-arriskuak murrizteko. Telefono mugikor bat erabiltzean, erabiltzaileak arreta gal dezake, eta istripu bat eragin. Ezinbestekoa da gidatzean telefono mugikorren erabilerarako indarrean dauden tokiko legedia eta arauak betetzea. Ondorioz, debekatuta dago telefonoa erabiltzea gidatzen ari zarela, eta entzungailuak erabiltzea ezin daiteke irtenbidetzat jo.

Hegazkinean: Itzali telefonoa hegazkinetan.

Gogoratu telefonoa itzaltzea hegazkinean zoazenean (GSM + Bluetooth), interferentziak eragin baititzake.

4. Ospitaletan: Itzali telefonoa gailu medikoren bat gertu dagoenean.

Oso arriskutsua da telefono bat martxan jartzea gailu mediko bat gertu dagoenean.

Horrek interferentziak eragin ditzake gailu horiekin. Ondorioz, errespetatu ospitaletako edo osasun-zentroetako jarraibide eta ohar guztiak.

Gogoratu telefonoa itzaltzea gasolindegietan. Ez erabili mugikorra **gasolindegietan**, erregaietatik gertu.

Arriskutsua da telefonoa **konponketa-tailer** baten barruan erabiltzea.

5. Inplante elektronikoak eta taupada-markagailuak: Inplante elektroniko bat edo taupada-markagailu bat dutenek, deiak egitean, telefonoa inplantearen kontrako aldean jarri behar dute. Telefonoak taupada-markagailu bati interferentziak eragiten dizkiola ohartzen bazara, itzali berehala telefonoa, eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren fabrikatzailearekin edo zure medikuarekin, zer egin behar duzun jakiteko.

6. Sute-arriskua: Ez utzi telefonoa bero-iturri batetik gertu; esaterako, erradiadore edo gazezko sukalde batetik gertu. Ez kargatu telefonoa materia sukoietatik gertu (sute-arriskua ukaezina da).

7. Likidoekin kontaktuan: Telefonoak ez dezala izan

kontakturik likidoekin edo esku bustiekin. Urak kalte konponezinak eragin ditzake.

8. Erabili WIKOk homologatutako osagarriak bakarrik. Osagarri ez-homologatuak erabiltzeak zure telefonoa honda dezake edo arriskuak eragin ditzake.

9. Ez manipulatu ez bateriak, ez kargagailuak. Inoiz ez erabili hondatutako bateriarik edo kargagailurik.

Ez jarri bateriak objektu magnetizatuekin kontaktuan, baterien + eta - borneen artean zirkuitulabur bat gerta baitaiteke edo baterian edo telefonoan kalte konponezinak eragin baititzake. Oro har, ez eduki bateriak tenperatura oso baxu edo oso altuetan (0 °C-tik behera edo 45 °C-tik gora). Tenperatura-alde horiek baterien autonomia edo bizitza baliagarria murriztu dezakete.

10. Erorketak edo kolpeak: Kontu handiz erabili eta maneiatu telefonoa.

Babestu telefonoa honda dezaketen erorietatik edo kolpeetatik. Telefonoaren elementu batzuk beirazoak dira; beraz, hautsi egin litezke eroriz gero edo kolpe handiak jasoz gero.

Ez dadila telefonoa erori. Inoiz ez ukitu pantaila objektu puntadunekin.

11. Elektrizitate-deskarga: Ez saiatu telefonoa desmuntatzen. Elektrizitate-deskarga bat eragin diezazuke.

12. Mantentze-lanak: Telefonoa garbitu nahi baduzu, erabili zapi lehor bat (inoiz ez disolbatzaileak, hala nola bentzenoa edo alkohola).

13. Kargatzea. Ondo aireztatutako lekuan kargatu telefonoa. Ez kargatu oihal baten gainean dagoela.

14. Banda magnetikoak hondatzea: Ez jarri telefonoa kreditu-txarteletatik gertu, haien banda magnetikoak honda baitaitezke, eta, ondorioz, txarteletako datuak ere bai.

15. Telefonoaren tenperatura: Ez erabili mugikorra tenperatura altuegietan edo baxuegietan. Ez jarri eguzki-erradiazio edo hezetasun handia dagoen lekuetan. Zure terminalerako tenperaturarik egokiena $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ eta $+45\text{ }^{\circ}\text{C}$ artekoa da. Fabrikatzaileak gomendatzen duenez, kargatzeko gehieneko tenperatura $+40\text{ }^{\circ}\text{C}$ da.

16. Telefono mugikorraren karkasa egiteko erabiltzen den materiala dela eta, 2.0 edo bertsio berriagoko USB interfaze batera konektatu behar da. Debehatuta dago USB deiturikoa bezalako elikadura-iturrietara konektatzea.

17. Elektrizitate-egokigailua da ekipoa deskonektatzeko gailua. Korrante-harguneak ekipotik gertu egon behar du, erraz iristeko toki batean.

18. Kargagailu hau barnealdean soilik erabiltzeko egina da. Honelakoa da kargagailua:

EREMUA	HERRIALDEAK	KARGAGAILU-MOTA
1. eremua	Frantzia, Alemania, Italia, Portugal, Espainia, Belgika, Herbehereak, Suitza, Luxenburgo, Polonia, Aljeria	UC35A50070. Irteerako tentsioa/ korrantea 5.0 V / 0.7 A-koa da
2. eremua	Arabiar Emirerri Batuak, Nigeria, Kenia	UD56A50100. Irteerako tentsioa/ korrantea 5.0 V / 1.0 A-koa da

~ Erabilera-ohar garrantzitsuak

1. Bateriaren bizitza baliagarria handitzeko, erabili WIKOren kargagailuak eta bateriak bakarrik. Jatorrizko bateria baten ordean onesten gabeko bateria bat erabiltzeak azken hori leherraraz dezake.
2. Inoiz ez bota bateriak sutara. Errespetatu erabilako bateriak eta telefonoak birziklatzeari buruz indarrean dauden arauak.
3. Saiatu bateriarik ez hondatzen eta ez zapaltzen. Horrek barneko zirkuitulabur bat edo gehiegi berotzea eragin dezake.
4. Ez desmuntatu bateria.
5. Bateria ehunka aldiz kargatu daiteke ordeztu aurretik. Bateriaren errendimendua jaitsitakoan, jarri harremanetan zerbitzu teknikoarekin, beste bat jartzeko.
6. Telefonoa ez baduzu erabiliko denbora luzez, gogoratu bateria kargatzea; hala, haren bizitza baliagarria optimizatuko duzu.

7. Ez bota bateriak etxeko hondakinekin batera, be-reizi gabe. Kontuan hartu birziklatzeko aukera, eta bete fabrikatzailearen jarraibideak. Bateria hondatuta badago, eraman saldu osteko zerbitzura edo WIKOren hurbilenerako banatzailerara.

8. Energia-kontsumoa murrizteko, deskonektatu kargagailua korrante-hargunetik bateria kargatutakoan.

9. Ez utzi bateria kargatzen egunetan, gehiegi kargatu baitaiteke eta produktuaren bizitza baliagarria txikitu baitaiteke.

10. Arretaz maneiatu SIM txartelak. Garbitu egin behar badituzu, oihal lehor bat pasatu suabe-suabe.

11. Larrialdi-deiak: Baliteke larrialdi-zenbakiak erabilgarri ez egotea telefonia mugikorreko sare gutzietan, hala nola eremu isolatuetan edo estaldurarik gabekoetan. Aurrez, kontsultatu zure telefonia-operadorearekin.

12. Irrati-maiztasunarekiko esposizioa:

Maiztasun erradioelektrikoekiko esposizioari dago-kionez nazioarteko direktibak (ICNIRP1) errespetatu

ditzan pentsatu eta egin da zure telefono mugikorra. Direktiba horiek erakunde zientifiko independenteek ezartzen dituzte, telefono mugikorrek erabiltzen dituzten pertsona guztien segurtasuna bermatzeko egiten diren azterketa eta ikerketen bidez. Irrati-uhinekiko esposizioari buruzko kontsignek SAR (Absortzio Espezifikokoaren Koefizientea). izeneko neurketa-unitate bat erabiltzen dute. Nazioarteko direktibek 2 W/kg-ean* ezarri dute muga hori. SAR koefizientea identifikatzeko testak egitean, funtzionamendu-posizio estandarretan erabiltzen da telefonoa. *¹Erradiazio ez-ionizatzailetik Babesteko Nazioarteko Batzordea*

Absortzio Espezifikokoaren Koefizientea potentzia-mailarik altuenaren bidez zehazten bada ere, telefonoak martxan dagoela duen egiazko koefizientea gehieneko balioa baino askoz txikiagoa izan liteke. Hainbat potentzia-mailatan funtzionatzeko eginak dira telefonoak, sarera konektatzeko behar duten potentzia soilik erabil dezaten.

Gainera, merkaturatu aurretik, telefono-modelo guztiei hainbat test egiten zaizkie, Europako R&T-TE direktiba betetzen dutela bermatzeko. Direktiba horrek arau zorrotzak ezartzen ditu erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko eta osasunerako arriskuak prebenitzeko.

Modelo hau belarritik hurbil erabiltzeko onartutako gehieneko SAR balioa 0,580 W/kg da, eta, gorputzetik hurbil erabiltzekoa, berriz, 0,916 W/kg, gutxienez 1,5 cm-ko tartea utzita. Balio horiek betetzen dituzte maiztasun erradioelektrikoekiko esposizioko arauak, posizio normalean erabiliz gero, belarriaren parean, edo gorputzetik gutxienez 1,5 cm-ra. Fitxategiak, datuak edo mezuak transmitzeko, sarerako kalitateko konexio bat erabiltzen du gailu honek. Batzuetan, baliteke fitxategi edo mezuen transmisioa atzeratzea konexioa egin ahal izan arte. Hala bada, ez ahaztu transmisioa ezartzeko behar den distantziari buruzko jarraibideak betetzea.

Zorro bat, gerrirako pintza bat edo telefonoa eramateko bestelako euskarriren bat erabiltzen baduzu, ez du izan behar metalezko piezarik, eta gailuak gorputzetik gutxienez 1,5 cm-ra egon behar du. *Telefono mugikorretarako SAR muga 2,0 Watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, ehun zelularren hamar gramoko. SAR balioak aldatu egin litezke, herrialde bakoitzean dauden informazioa aurkezteko moduen arabera.

Esposizio-maila murrizteko aholkuak

Jasotako erradiazio-kantitatea murrizteko, seinalea hartzeko baldintza onetan erabili zure telefonoa. Ahal dela, ez erabili lurpeko aparkalekuetan edota autoan, trenean... zoazenean. Seinalea hartzeko baldintzak barra bertikal batzuen bidez bistaritzen dira telefonoan. Zenbat eta barra gehiago bistaratu, orduan eta hobeto jasotzen da seinalea.

Erradiaziorako esposizioa murrizteko, esku libreko kita erabiltzea gomendatzen dizugu.

13. Zure telefonoa teknikari baimenduek konpondu

behar dute. Baimenik gabeko norbaiti ematen badiuzu telefonoa konpontzeko, WIKOk ez du bere gain hartuko telefonoaren bermea.

14. IMEIa terminalaren serie-zenbakia da, eta hura identifikatzeko eta saldu osteko segimendua kudeatzeko erabiltzen da. Modu bat baino gehiago daude IMEI-kodea jakiteko:

- *#06# markatzea telefonoaren teklatuan.
- Telefonoaren kaxa kontsultatzea.
- Zure telefonoaren bateria kentzea (ateratzeko modukoa bada). Atzealdean aurkituko duzu IMEI kodea duen etiketa.

(Bateria atera ezin bada, kontsultatu telefonoaren atzeko aldeko etiketa).

ADI

Produktuaren ohiko erabileragatiko higadura (bateriak, pantailak, teklatuak, argazki-kameraren objektiboak) ez da sartzen **WIKO**ren bermean.

Datuak erabiltzeko hitzarmena

WIKOk doan erregistratzen du zure telefonoa. Zerbitzu horren bidez, WIKOk teknikiariak zure telefonoaren datuekin konektatuta egon daitezke eta denbora errealean ikus ditzakete zure zehaztapenak eta modeloa, eta, era berean, zure sistemarako zer eguneraketa dituzun jakinaraz diezazukete, eta zure modeloan edo haren seriean akats teknikoren bat badago, horren berri eman. Gainera, arazoren bat badago, zerbitzuak berehala bidaltzen digu oharra, zuri irtenbide tekniko bat emateko lehenbailehen. Zure telefonoa erregistratzen duzunean, onartzen duzu WIKOk eta hango teknikiariak jaso, gorde, aztertu eta erabili egin dezaketela diagnostiko-informazioa, informazio teknikoa, erabilera-informazioa eta haiei lotutakoak, baita zure WIKO gailuari, sistemaren softwareari eta zure aplikazioei buruzkoa ere (mugarik gabe). Informazio hori maiz jasotzen dugu, zuri errazago helarazteko softwarearen eguneraketak, produktuetarako laguntza eta zure gailuaren softwareari lotuta bezeroei proposatzen

zaizkien hainbat zerbitzu. WIKOk informazio hori erabil dezake, bezeroaren identitatea jakinarazi gabe, erabiltzaileari bere produktu edo zerbitzuetarako hobekuntzak proposatzeko. Zerbitzu horrek ez digu ematen zure eduki eta fitxategi pertsonaletarako sarbiderik.

Zure WIKO telefonoa erregistratzeko, mugikorreko datu-sarerako konexioa behar duzu. Baliteke hori dela-eta komunikazio-gastuak ordaindu behar izatea, telefonia mugikorreko operadorearekin duzun kontratuaren arabera. Prozesu horretarako WiFi konexio bat erabiltzea gomendatzen dizugu.

WiFi-a erabiliz gero, ez duzu datu-mugarik (zure telefono-kontratuak datu-trukea mugatzen badu), eta konexioa azkarragoa da.

Zure terminalak bidaltzen duen informazioari tratamendu informatiko bat ezartzen zaio, zure telefonoaren datuetara sartzeko. **WIKO SAS da datu horien hartzailea. 1978ko urtarrilaren 6ko "informatika eta askatasunak" Legearen arabera (2004an aldatua), eskubidea duzu erregistratzeko eman duzun informazio pertsonalera sartzeko eta**

zuzentzeko. Hemen gauzatu dezakezu eskubide hori: WIKO SAS, 1 rue Capitaine Dessemond, 13007, MARSEILLE.

Arrazoi legitimoak direla eta, zure datuen tratamenduaren aurka ere egin dezakezu.

~ Birziklatzea



Eskuliburu honetan, edukiontzi ezabatu baten irudiak adierazten du produktua Europako direktiba baten mende dagoela, 2002/96/EE Direktibaren mende: produktu elektriko edo elektronikoak, bateriak eta metagailuak eta bestelako osagarriak gaika jaso behar dira nahitaez. Telefonoaren bitzta erabilgarria bukatzen denean, erabili birziklatzeko edukiontziak edo eraman telefono mugikorren dendara batera. Hala, osasunerako arriskuak murrizten eta ingurumena zaintzen lagunduko duzu. Udalek eta banatzaileek eta eraikuntzako elkarte nazionalak emango dizkizute gailu zaharra botatzeko oinarriko zehaztapenak.

«Gure fabrikatzaile-bermearen xehetasunak eta baldintzak webgune honetan daude: es.wikomobile.com»

ADOSTASUN-ADIERAZPENA

Hau sinatzen duen enpresak, WIKO SASek (Helbidea: 1, rue Capitaine Dessemond - 13007 Marseille - FRANTZIA) honen bidez adierazten du **SUNSET telefono mugikorrek** betetzen dituela direktiben arau eta xedapenak.

V1.4.1 EN 301 489-7 V 1.3 .1 EN 301 489-17 V2.1.1 EN 301 489-34 V 1.3 .1 EN 61000-3-2:2006/A2:2009 EN 61000-3-3 : 2008
EN 300 4 40-1 V 1.6.1 EN 300 4 40-2 V 1.4.1 / EN 50360: 2001 EN 62 209-1: 2006 EN 62 209-2: 2010 EN 62311: 2008 / **IRRATIA**
: EN 301 511 V9.0.2 (2003-03) EN 300 328 V1.7.1(2006-10) EN 301 908-1 V5.2.1 EN 301 908-2 V5.2.1

Adostasun-adierazpenaren prozedura, 1999/5/EE Direktibaren 10.5 artikuluan zehaztua, erakunde honek gain-begiratuta egin da:

PHOENIX TESTLAB GmbH, Königswinkel 10

D-32825 Blomberg, Alemania

www.phoenix-testlab.de

Telefonoa: +49(0)5235-9500-0 / Faxa: +49(0)5235-9500-10

CE 0700

Gailuaren Adostasun Adierazpenaren testu osoa eskuratzeko, posta arrunt bidez egin behar da eskaera, helbide honetan: **WIKO SAS** - 1, rue Capitaine Dessemond - 13007 Marseille - FRANTZIA

2014/06/30

(Eguna)



Michel ASSADOURIAN / CEO

(Behar den baimena duen pertsonaren izena eta sinadura)

The logo for Wiko, featuring the word "Wiko" in a stylized, rounded, teal font.

SHARE YOUR IDENTITY

WIKO SAS

1, rue Capitaine Dessemond
13007 Marseille
FRANTZIA

www.wikomobile.com



BEZEROARENTZAKO INFORMAZIOA

Fabrikatzailea eta LTZ zentrala

Wikomobile Iberia SL. Arabako Parke Teknologikoa
Leonardo Da Vinci kalea, 14. 01510 Miñao (Araba)
ESPAINIA

Bezeroarentzako Arreta Zenbakia: 902 103 827

Laguntza teknikoa: sat@wikomobile.es



Entzungailuen bidez potentzia altuan denbora luzez entzuten egoteak kalteak eragin ditzake entzumenean.